

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

3196

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 2koa, Babes Zibileko sailburuordearena, irabazi-asmorik gabeko elkarteei joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzak ematen dizkiena.

Segurtasuneko sailburuaren 2025eko otsailaren 18ko Aginduak arautzen du joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko EAeko irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko araubidea (2025eko otsailaren 25eko EHAA, 38. zk.).

Agindu horren oinarriekin bat etorriz, eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako Balorazio Batzordearen txostena ikusita, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean aipatzen diren eskatzaileei bertan zehazten diren dirulaguntzak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau erakunde interesdun guztiei jakinaraztea.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta beronen aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau berariaz jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 2a.

Babes Zibileko sailburuordea,
JOANA EGILUZ IBARGUEN.

ERANSKINA

ESKAERAREN, PUNTUEN ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

Onuraduna/proiektua	Puntuak	Dirulaguntza
Bidesari «Esan ez»	100	10.820,00
Ekintza-Aluviz «Joko patologikoaren informazio- eta prebentzio-plana»	100	3.150,00
Ekintza-bibe/ «Kontrolklik»	100	5.000,00
Asajer Zure osasunaren aldeko apustua	72	12.750,00
Etorkintza Fundazioa «Nerabeen eta gazteen artean ausazko jokoak eta kirol-apustuak prebenitzeko tailerra»	63	15.000,00
Izan Fundazioa «Joko patologikoaren informazio eta prebentzio unibertsalerako proiektua»	60	10.529,89
Kiribil Sarea «Jokoan sartuko zara?»	50	9.092,00
Adsis Fundazioa «Lotura proiektua»	49,5	15.000,00
Susterra Elkartea «Txanponaren beste aldean»	44	8.745,98
Bitar-bask «Joko patologikoa 2025»	23	9.911,91
Guztira		99.999,78